

### IGERILEKUA TRINKETEKO APARKALEKUAN

Ekainaren 29tik uztaillaren 24ra, astelehenetik ostiralera 16:00etatik 19:00etara.



### UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Aurten ere izango da Irura Bizik udan antolatzen duen lehiaketa. Udan zauden lekuan zaudela atera argazki bat kirola egiten ari zarela: yoga, mendi txangoa, paddle surfa, korrika naiz bizikletan... denak balio du!

Argazkia Irura Biziko kamiseta soinean duzuela ere izan daiteke!

· Publiko guztia

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)



### TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK

Edukiontzien ondoan utzi daitezke hileko 1. eta 3. ostiral bezperan, 20:00etatik 22:00etara.

Garbigunera ere eraman daitezke. Etxetresna elektriko berria erosiz gero, zaharra dendan ere utz daiteke.

· Ekainak 4 · Ekainak 18

### IRURA ESKURA APLIKAZIOA

Gure herriaren berri uneoro eskura eta modu erosoan izatea ahalbidetzen du.

Oso erraza da aplikazioa mugikorrean instalatzea.

Android sistemako mugikorretan Play Store-n

sartu behar da, Iphone-etan, APP

Storean. Bi kasuetan, Irura hitza

idatzi bilatzailean. Aplikazioan klik

egin eta deskargatu.

IRURA ESKURA



#### NOTA

Toda la información en castellano en [www.irura.eus](http://www.irura.eus) o en la oficina de cultura

22 / astelehena 16:00 Frontoia

### KIROL TOPAKETAK: ESKUBALOIA

Eskubaloiaz gozatu taldean jolas ezberdinak eginez.

- LH1etik DBH4ra
- Euskaraz
- Izena emateko azken eguna ekainak 5.



23 / asteartea 20:00 San Migel plaza

### SAN JUAN BEZPERA

Barrikotea, sua piztea, eta Onintza abesbatza.

- Publiko guztia
- Oharra: Barrikoterako mahaiak eta sagardoa Udalak jarriko ditu.
- Irurako App-tik galdetegi bat zabalduko da mahaiak erreserbatzeko.

29 / astelehena 16:00 Herri eskola

### ODOL EMATEAK

Lagundu biziari, eman odola!

Ekainaren 29 goizean 943007884 telefonora deitu eta hitzordua eskatu beharko da.

(Irurako Odol Emaileen Elkarteak antolatuta)

ODOLA EMAN



BIZITZA EMAN

### II. IRURAKO OSTATUA XARE IREKIA



1. GAZTEAK  
2. NAGUSIAK

www.ametsaxareirura.eus

### II. IRURAKO OSTATUA XARE IREKIA

Ekainak 5 / ostirala 18:00

1. Izei-Paule vs Adei-Eneko

2. Matxalen-Oier G. vs Ibai -Markel

Ekainak 12 / ostirala 19:00

NAGUSIAK / FINALERDIA

MULTZOKO 2.a vs 3a

Ekainak 19 / ostirala 18:30

FINALAK

1. GAZTEAK

2. NAGUSIAK

(Ametsa pelota elkarteak antolatuta)

2026 GiDA

EKAINA



EKAINAK 8-15-22  
KIROL TOPAKETAK

EKAINAK 23  
SAN JUAN  
BEZPERA



euskara




Irurako udala



kultur mahaia



castellano



**2 /** asteartea **18:00** Udaletxeko ganbara  
**BASO PLANAREN AURKEZPENA**

Naturzaindiakoek egin duten Baso Planaren lanketaren aurkezpena. Bertan, larretarako erabili nahi diren partzelen egokitzapenez hitzegingo da eta baita, Gipuzkoako Aldundiari larre hauei lotutako beharrak aurkezteko zerrenda osatuko da.

- Publiko guztia , bereziki herriko abeltzainak
- Euskaraz



**3 /** asteazkena **11:00** San Migel plaza  
**TIPI TAPA: OSASUNA ETA HARREMANAK SUSTATZEKO EKIMENA**

**Adinekoak sasoian egoteko aukera bikaina.**

Ireakia bada ere, 65 urtetik gorako herritarren artean ibilbide bat burutu, ariketa fisikoa egin eta elkarren arteko harremanak sustatzeko. Nahi duenak 10 min. aurretik berotze ariketak egin ditzake. Ondoren hamaiketaketoxo bat egiten da.

- +65 urte

**6 /** larunbata **18:00**  
Elizako portikoa  
**BITARTEAN FOLK TALDEA ETA ONINTZA ABESBATZAREN KONTZERTUA**

Publiko guztia.

(Onintza abesbatzak antolatuta)



**8 /** astelehena **16:00**  
Frontoia  
**KIROL TOPAKETAK: PATINAIA**

Patinaiaz gozatu taldean jolas ezberdinak eginez. Kaskoa ekartzea derrigorrezkoa da.

Babesgarriak ekartzea komenigarria.

- LH1etik DBH4ra
- Euskaraz
- Izena emateko azken eguna ekainak 5

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)



**9 /** asteartea **19:00** Kalistenia parkea  
**IRURA BIZI KORRIKA**

Animatu taldean korri egitera, berdin du zein den zure maila, denok zaudete gonbidatuak!

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)



**11 /** osteguna **18:00** Udaletxeko ganbara  
**HUTSUNE HANDI BAT**

Hutsune handi bat dokumentalak sendatu gabeko zauriei eta minari buruz hitz egiten du. 115 gaztetik gora hil ziren Urretxun eta Zumarragan heroinaren eta HIESaren ondorioz. 115 amets, 115 hutsune, bi herrion paisaiaren zati bihurtu direnak, izan ere, herriak hutsuneek ere osatzen baitituzte. Horretaz hitz egiten du Hutsune handi bat dokumentalak; Bizirik geratu zirenen bizipen, sentimendu eta hutsunez. Zintzotasunez mintzo dira. Gogoratzearen min eta beldurrez.


- Gazte eta helduak
- Elebrietan azpitituluekin

**15 /** astelehena **16:00**  
Frontoia  
**KIROL TOPAKETAK: PELOTA**

Pelotaz gozatu taldean jolas ezberdinak eginez.

- H1 etik DBH4ra
- Euskaraz
- Izena emateko azken eguna ekainak 5.

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)




**15 /** astelehena **18:30**  
Udaletxeko ganbara  
**IRURAKO IRAKURLE TALDEA**

Taldekoa izan zein ez izan, etorri gurera, liburuak aitzakiatzat hartuta elkarrizketarako bideak zabaltzera!

Hilabete honetako irakurgaiak:

**“Bisita”, Mikel Pagadi.**

- +16 urte
- Euskaraz



**17 /** asteazkena **17:00** Udaletxeko ganbara  
**IRURA ZAINDUZ TOPAKETA IREKIA**

Irurako Udalak Irura Zainduz prozesua jarri du martxan, herrian zaintzak modu komunitarioan antolatu, ulertu eta indartzeko helburuarekin. Zaintzen egungo erronkei aurre egiteko, ikuspegi feminista, jasangarritasuna eta elkarlana ardatz dituen ekimen kolektiboa da. Prozesu honen baitan,



**Irura zainduz**

herritar guztiei irekitako topaketa bat egingo da, ekimenaren nondik norakoak aurkezteko: asmoak, helburuak eta proposatutako Zaintza Ekintza Plana. Era berean, Zaintza Mahaia aurkeztuko da, maiatzean zehar egindako talde elkarrizketen ondorio nagusiekin batera. Saiok aukera emango du, halaber, herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzeko, prozesua elkarrekin aberasteko. Zaintza guztion ardura delako, Irurako herritar guztiak gonbidatuta zaudete parte hartzera.

- Elebrietan
- Publiko guztia

**19 /** ostirala **22:00**  
Udaletxeko ganbara eta elizako portikoan

**ZINEMA-GAUA**

Zine-gau feminista antolatu da, bai heldu, bai haurrentzat. Herriaren goxotasunean euskarazko bi film feministez gozatzeko aukera egongo da krispetekin.

Helduek Erlauntza (Mireia Gabilondo, 2020) filma ikusiko dute; haurrek, aldiz, Nur eta herensugearen tenplua (Juan Bautista Berasategi, 2017). Batak zein besteak emakumeak ditu protagonista. Ez galdu aukera!

- Euskaraz
- Publiko guztia
- Haurrek filma ikusten duten bitartean zaintza zerbitzua egongo da

